



84



MIKEL ERRIONDO

*EGIZUTE NEREKIN
ABERRI-BIDEA
EZ BAITA IL GURE ERRIA
IL EZ DA TA EZ DA ILKO
GUK EZ BADEGU NAI
ZUTITU GAITEZEN!*

LIZARDI

Gipuzkoako Ikastolen Ilkarteak, 1984. urteko KILOMETROAK Urriaren 7an ERRENTERIAN ospatuko zela erabaki bezain laister, gure Ikastolako Gida Batzordeak, ni hautatu ninduen egun honen antolaketan jarduteko taldea osatu eta bertako egintzen koordinaketaz arduratu nendin.

Hontarako, bestelako talde bat osatzen saiatu nintzen, abertzale hautaketa desberdinetatik lan ohitura zuten pertsonen artean, herri guztiaren mailan lortu nahi genuena gure baitan aurrera eramateko gai zirenak; hau da, gure indar guztien elkartasun interesgabea, helburu zehatz bati zuzendurik; gure KILOMETROAKen arrakasta.

Talde hontako kideak, honako hauek ziren: Gida Batzordeko Julian ALBISTUR eta Miguel Mari LASA; ohizko Iñaki AGUINAGA, Xanti LINAZASORO; Felix OYARBIDE, Manu MENDIZABAL eta David GOMARA, Mari Carmen ZUGARRAMURDI, Iñaki BARIGANA, Mikel BAGUES, Xabier MARTINEZ, Jose Luis ECHEVERRIA, Imanol LUZURIAGA, Joxan SESMA eta Felix SALAZARekin (Melli) batera.

Gure basea Juan de Olazabaleko Ikastolaren Bulegoan zegoen eta bertako gerentea den Iñaki ZUBELDIA eta Gema IÑARRAren laguntza etengabea genuen.

Gure herriak, borroka ospea du, ERRENTERIAK duen gauza bakarraren itxura emanaz. Ekintza honen alderdi ona edo txarra alde batetara utzirik, argi dagoena, ERRENTERIA gauza gehiago ere badela da. Beti izan da honela gainera. Bere jaiotzaz gozotik, iadanik, 1320. urtean Oiartzun bailarako ORERETA hauzoa Munizipio bilakatzen denean, ERRENTERIAN bihurturik, bi konstante dira berarekin batera aurrera jarraituko dutenak bi mendeetan zehar: bere kemen handia eta etengabeko borroka.

Gure historia eta gaur eguneko errealitatearekin bat etortzearen, nire ustez bidea prestatu behar genuen, gure herriak hala nahi bazuen, Herrialde guztiari beraren irudi benetako eta osoagoa azaldu ahal zezan.

Helburu honekin, denen aldetik borondate handia behar zen, eta hala izan gainera, ez bakarrik lehen taldea osatzen zutenen aldetik baizik eta laguntza, lankidetasuna eta kasu zehatz batzurretan ere ulerkuntza eskatuaz zuzentzen ginen herriko indar guztien aldetik ere.

Martxoan eman genion hasera bilerei eta orduantxe bertan erantzunkizunak banatu genituen bakoitza bere zatiaz arduratu eta lanean has zedin.

KILOMETROAK ospatuko zen egunaren giroa prestatzeko, aurreko astean kultur eta kirolezko ekintza batzu antolatzea beharrezkoa zela pentsatu genuen. Honekin batera, beste ideia bat burutatu zitzaigun. Ikastolarteko lehen Olinpiada antolatzea alegia. Hasera batetan, Euskal-Herri guztia barne-sartzea nahi genuen bainan ia ezinezkoa zela ikusirik, Gipuzkoara bakarrik mugatu ginen. Garai berean, Aginagak, aurreko aste hau DONOSTIARA zabaltzea proposatu zuen, hontarako, Catalina de Erauso Taldearen laguntza interesgabea, eta gero ikusi zenez ilusio handikoa, bait zuen. Talde hau, guk Errenterian egiten genuen denbora berean, DONOSTIAN KILOMETROAK ospatuko zen eguna girotzearen, aste kultural bat ere antolatzeko prest zegoen. Honela beraz, bakoitza bere ardurarekin hasi bezain laister, laguntzaileen beharra nabaritu genuen. Hau izan zen lehen poza; laguntza eskatzen genien guztiak, baietza ematen zuten. Honela ematen zitzaion hasera laguntza aurrerakorrari, 15 lagunek hasita gero eta gehiago ugartuaz eta garrantzitsuagoa eginez.

Egunak joan egunak etorri, alderdi desberdinak zehazten zihoazen: ibilbidearen mugaketa, anagrama, egunari buruzko antolaketa multzoa eta aurreko asteari buruzko ikuskizunak ere. Olinpiada abiatu zen, Txirindulari kriteriuma definitu zen iadanik, Musika Enparantzako Kontzertua bide onetik zihoan, Benito Lertxundik baietza eman zuen etab.

Azkenik, Aste Kulturala iritsi zen, KILOMETROAK egunaren aurreaioa. Saiagintza orokorra izan zitekeen, Zaila zen oke-



rrago hastea. Oso eguraldi txarra, Hortensia haizerauntsiaren eraginez. Hemen hasi zen aire librean ikuskizun guztietan eguneroko kontua... ausartu edota eten. Kontzertuarekin ausartu ginen eta miraria zirudien ikuskizunaren haseratik bukaeraraino eguraldiak hala hola eustea, azkenean, ikuskizunaren amaieran, benetazko eurijasa botatzeko. Ez genuen zorte bera izan Txirrindulari Kriteriumarekin. Hala ere, parte-hartzaile, laguntzaile eta ikuslegoaren borondate onagatik, ospatu egin zen.

Zegoeneko, laguntzaile aktiboen kopurua oso garrantzitsua zen, baina askoz ere gehiagoren beharra zegoen eta gure herriak, grinaz erantzuten zuen. Laguntza eskatzen genien guztiak, baietza ematen zuten segituan edota txarreneira jota, bere emazte, ama, aitagarreba, alaba... bertan ari zirelako, berak haurrak zaindu behar zituela.

Azkenik iritsi zen eguna. Goizeko 6retan denok elkarturik geunden... euripean. Denbora aurrera zihoan eta euria barra barra. Xanti Linazasorok ez beste, honek, zuk nahi ez bazenuen ez zuela euririk egiten baieztatzen zuena, beste guztiok, oso urduri geunden.

Eta iritsi zen herriaren erantzuna, ehunaka pertsona ari ziren elkarlanean (1.700 pertsona izan ziren gutxi gora behera zuzenean lanean ari zirenak). Baina herriaren erantzuna zapuztu zitekeen eguraldiak berdin jarraitzen bazuen. Euria gelditu zen eta bazirudien eguraldia aldatzera zihoala. Gure ustez egingo zen eguraldiaren arauera hartu behar genituen erabakiak... arrisku guztiakin. Eguraldi onaren alde egin genuen apostu!... bai eta asmatu ere. Iritsi zen azkenik.

Koldo MITXELENak, Bittor IDIAZABALEkin batera, zinta moztu zuten eta Jose Miguel BARANDIARAN jaunarekin

batera sartu ziren ibilbidean. Hemendik aurrera ezin dut asko kontatu zeren eta denok gainezkaturik geunden. Hau argi erakuts dezakete egun guztian lanean jardun ondoren... bazkaldu gabe gelditu zirenak. Edota zerbait kontsultatu beharrean aurkitu eta... erantzuna asmatu behar izan.

Milaka pertsona iristen hasi zen. Eguerdirako ogia falta zen. Inguruetako herritara joan behar zen bila... falta zen. Eta gertaldietan sartzen gara: Emakume bat sarreretako batetara, Aurrezki Kutxako kartila batekin joan zen... atera, atera... ez dakit ba... 2.000 pzta. Kaiko parkinean ke laino eta eztanda artean badator berebil bat (edo hontaz gelditzen dena). Kaixo... nondik joaten da KILOMETROAKen sarrerara? Kotxea, nahiz eta saiatu, ezin izan genuen konpondu. Harro egin zuen azken bidaia. Biharamonean EIBAR aldera zihoan gruarekin, autodesegitera. Kaixo... ongi al noa KILOMETROAKera?... baino hau galdetzen zuena zaldi gainean zihoan.

Aurreko marka guztiak gairitu ziren, jendetorria, diru-bilketa, onura, etab. Zenbat pertsona joan zen bertara?... Austalo 120/150/175.000 pertsona?

31.230.000 pzta. jaso ziren, 16.245.000 pzta. onura gisa gelditurik.

Baina nire ustez, arrakasta handiena, jendetorri masiboari zor diogu, eguraldia gairiturik. Helburu argia denean, ulergarria eta denen nahia, gure herriaren batasuna lortu daitekeela frogatzen du honek.

Antolaketan parte hartu genuen guztientzat, eta denen izenean hitzegiten ausartzen naiz, ia gure herri osoa alegia, gutxitan bezain gratifikantea izan zen ekintza honetan parte hartzearen atsegin eta ordaina.